

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

-Gure enpresaren zerbitzua, **nahiz eta ikasleentzat eta irakasleentzat zuzenduta** egon, **benetako bezeroak ikasleen gurasoak** izango dira. Ikasleek beraien kabuz ez badituzte klase partikularrak bilatzen, gurasoak dira honetaz arduratzen direnak. Gainera hauek dira prezioak konparatu behar dituztenak eta komenigarriagoak egiten zaizkien tarifak edo ikastorduak kontratatzea.

- Hala ere, **baldin eta ikasleak 18 urte baditu, bere klaseak kontratatzeko** eta burutzeko eskubidea izango du inongo baimenik gabe, askatasun osoz.

-Beraz, gure enpresak merkatu-nitxo baten eredia jarraituko du, hau da, bezero oso zehatzak eta berezituak dituen segmentua.

-Esan genezake gure nitxoak bakoitzaren **ikaskuntza ziklo edo garaiaren arabera bereizten** direla, **eta** behar duten **arloaren arabera** baita ere. Adibidez nitxoetako bat DBH 4ko matematika behar dutenak izan daitezke, beste bat batxilergoko historia arloan laguntza behar dutenak... Demagun, gure enpresa lehen eta bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta unibertsitateko bezeroak izango dituela . Kasuan, ez lukete irakasle eta ezagutze-maila bera beharko lehenengo eta azkenik aipatutako bezero motek. Orduan, bezero motaren arabera izango dira irakasleak eta hauen ezagutzak. Horretaz gain, lanbide hezkuntzetan adituak diren irakasleak gure izena emango balute, sektore horretako zerbitzua ere eskainiko genuke.

Ikaslearen arabera irakasleek bete behar dituzten baldintzak azaltzen dituen taula bat egin dugu (aipatzen diren ezaugarriak betetzen diren edo ez, zuzendaritzako kideok aztertuko dugu :

***Irakasleak batxilergoa bukatuta izan behar du edo gutxienez 18 urte izan behar ditu** arazo legalak eta tutoreei baimena eskatu behar izatea ekiditeko.

*Umeak euskaraz ikasi ezker, irakasleek B2a edo aurreko bi ikasturteetan 7 bat baino gehiago izan beharko dute. Umeak gaztelaniaz ikasi ezker, gaztelania arloan 7 bat izan behar dute irakasleek aurreko ikasturteetan eta ikasleak ingelera edo atzerriko hizkuntzaren bat hobetu behar badu umearen mailaren arabera eskaerak aldatuko dira.

IKASLE MOTA	GURASO EDO IKASLEEI ESKAINIKO ZAIZKIEN IRAKASLEEN EZAUGARRIAK
Lehen Hezkuntzako ikaslea	-Irakasleak gutxienez batxilergoa izan behar du. -Irakaslea ikaslearen ikasketen hizkuntzan moldatu behar da. Horretarako, aurreko ikasturteetan hizkuntza horretan izan dituen emaitzak erakutsi behar ditu edo dagokion hizkuntzan ziurtagiri* bat erakutsi. -Ingelera irakatsi behar badu, Irakasleak B2 ziurtagiria izan beharko du. -Hizkuntzaz gain, dagokion arloa irakatsi behar badu ere, arlo horretan ibilbide akademikoan zehar emaitza onak izan behar dituela frogatu beharko du irakasleak eta irakasgaiarekin dagokion karrera edo masterren bat izan badu irakasleak, ederto.
Bigarren Hezkuntzako ikaslea	-Irakasleak gutxienez batxilergoa izan behar du. -Irakaslea ikaslearen ikasketen hizkuntzan moldatu behar da. Horretarako, aurreko ikasturteetan hizkuntza horretan izan dituen

	<p>emaitzak erakutsi behar ditu edo dagokion hizkuntzan ziurtagiri bat erakutsi.</p> <p>-Ingelera edo atzerriko hizkuntzaren bat irakatsi behar badu, Irakasleak B2 ziurtagiria izan beharko du gutxienez baina C1a izanda, eskaintza gehiago helaraziko zaizkio ingeles irakasle izateko.</p> <p>-Hizkuntzaz gain, dagokion arloa irakatsi behar badu ere, arlo horretan ibilbide akademikoan zehar emaitza onak izan behar dituela frogatu beharko du irakasleak eta irakasgaiarekin dagokion karrera edo masterren bat izan badu irakasleak, ederto.</p>
Batxilergoko Ikaslea	<p>-Irakasleak dagokion batxilergoa izan behar du. Hau da, adinez nagusia izateaz gain, ikasle batek ekonomia ikasi behar badu, Irakasleak Gizarte Zientzietako batxilergoa bukatuta izan behar du edo ikasle batek kimika ikasi nahi badu Irakasleak Zientzietako batxilergoan ibilbidea burutua izan behar du.</p> <p>-Irakaslea ikaslearen ikasketen hizkuntzan moldatu behar da. Horretarako, dagokion hizkuntzan ziurtagiri bat erakutsi.</p> <p>-Ingelera edo atzerriko hizkuntzaren bat irakatsi behar badu, Irakasleak B2 ziurtagiria izan beharko du gutxienez baina C1 edo C2a izanda, eskaintza gehiago helaraziko zaizkio ingeles irakasle izateko.</p> <p>-Hizkuntzaz gain, dagokion arloa irakatsi behar badu ere, arlo horretan ibilbide akademikoan zehar emaitza onak izan behar dituela frogatu beharko du irakasleak eta irakasgaiarekin dagokion karrera edo masterren bat izan badu irakasleak, ederto.</p>
Unibertsitateko Ikaslea	<p>-Adinez nagusitasunaren kontua guztiz aldatzen da eta hemen irakasleak irakatsiko duen arloarekin erlazioa duen karrera edo masterren bat izan behar du. Demagun IBEF ikasten duen norbaitek arazoak dituela anatomia ikasgaiari. Kasu horretan, IBEFeko karrera lortu eta anatomian emaitza onak lortu dituen norbaitek irakatsiko dio edo bestela, anatomiarekin zerikusia duen master edo ziurtagiriren bat lortu duen norbaitek.</p> <p>-Irakasleak ikaslearen hizkuntza berean ikasi duela frogatu beharko du edo bestela zuzenean ziurtagiria erakutsi dezake.</p> <p>-Atzerriko hizkuntzak irakastekotan, Irakasleak hizkuntza horretan C1 bereganatua izan behar du.</p> <p>-Berebiziko arreta erreparatuko zaie karrera bakoitzean emaitza onak lortu arren lan eskaintzarik jaso ez duten horiei. Izan ere, gure enpresak badaki gelako onenei unibertsitatean lanpostu bat eskaini ohi zaiela, baina era berean badakigu, lanpostuaren eskaintza jasotzen ez duten arren, irakasle gisa baliagarriak diren ikasle mordoa daudela.</p>
Lanbide Heziketako Ikaslea	<p>-Irakasle hauek ez dute berezitasun mota handirik izan behar, besterik gabe, ikasleak eskatutako arloetan emaitza onak izan dituztela frogatu edota ikaslearen Lanbide Heziketa bera burutu</p>

dutela frogatu beharko dute, edo irakasgai horretarako Unibertsitateko ikasketak izan.

-Ikasle mota hauetan aukera ematen da ikasle-irakasle konbinazio desberdinak egiteko. Euskara bezalako arloetan adibidez, Lanbide Heziketan ibili ez den irakasleren batek klaseak eman ahal dizkio behar duen ikasle bati, betiere ibilbide akademikoan zehar edo ziurtagiriaren frogan (kasuan, EGA) emaitza onak lortu baditu.

